Erdi Mailako Lanbide Heziketa

Irudi pertsonala

# Estetikako eta edergintzako teknikaria



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtsa
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du
UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

# Estetikako eta edergintzako teknikaria
## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

**Higieneko, depilazioko eta makillajeko zerbitzu estetikoak**

- Higieneko, depilazioko eta makillajeko zerbitzu estetikoaren bezeroari arreta egitea, segurtasun, osasun eta higiene baldintzak betez.
- Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-teknika estetikoak aplikatzea.
- Ilea prozedura mekanikoen bidez kentzea eta koloregabetzea.
- Aurpegiaren harmonia makillaje sozialeko estiloekin hobetzea.
- Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzea eta horiek saltzea.

**Eskuen eta oinen zainketa estetikoak**

- Eskuetako eta oinetako zerbitzu estetikoaren bezeroari arreta egitea, segurtasun, osasun eta higiene baldintzak betez.
- Azazkalak zaindu eta edertzeko teknikak aplikatzea.
- Azazkal artifizialak prestatu eta aplikatzea.
- Esku eta oinen tratamendu estetikoak egitea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek irudi pertsonalarekin zuzenean lotutako enpresa ertain eta txikietan egiten du lan; zehazki, estetikako eta ile-apainketako zerbitzuen sektoreko establezimenduetan, eta, orokorrean, irudi pertsonaleko eta kosmetikako produktuen salmentarekin lotutako establezimenduetan. Zeregin hauek betetzen ditu: makillaje soziala, depilazio mekanikoa, higieneko oinarrizko tratamenduak, aurpegiaren eta gorputzaren hidratazioa, eskuetako eta oinetako estetika, lurrin eta kosmetiko naturalei buruz aholku ematea eta produktu eta zerbitzu estetikoak merkaturatzea, enpresako bezeroei arreta zerbitzua eskainiz. Norberaren konturako langilea izan liteke, bere enpresa antolatuta.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Edergintza zentroetako eta estetika-kabineteetako teknikari estetizista.
- Makillatzailea.
- Azazkal artifizialetako teknikaria.
- Depilazioko teknikaria.
- Manikurako eta pedikurako teknikaria.
- Estetika-enpresetako harreragilea.
- Estetikako ekipamenduen, kosmetikoen eta tekniken erakuslea.
- Sektoreko enpresetako merkataritza-agentea.
- Lurrindegietako eta drogerietako aholkularia edo saltzailea.

### ZIKLOAREN MODULUAK

- Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak.
- Makillajea.
- Eskuetako eta oinetako estetika.
- Analisi estetikoa.
- Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak.
- Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia.
- Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea I / II.
- Azazkal artifizialetarako teknikak.
- Estetika-kabinako jarduerak.
- Lurringintza eta kosmetika naturala.
- Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Lantokiko prestakuntza.

LG/DL NA 328-2017